

CC 00
Kutzabank
atal
sindikala

Gurekin kontaktatu

94 4017024
943 001425
945 162455

ccoo@kutxabank.es
kutxabank@servicios.ccoo.es

<http://www.ccoo-servicios.es/kutxabank/>

Zk. 38


2016ko martxoa

Itsasoa zeharkatu beharrean...



... hegan egin nahi du gaineratik?

Hona hemen Kutxabaneko lehen emaitzak, Villalabeitia/Lurueña bikotearen aldiari oso-osoan dagozkionak. Bergantin ospetsuaren antzera, Kutxabankek itsasoa zeharkatu beharrean, itsasoaren gainetik hegan egiten du, eta aurreko urteko ekitaldiko datuak **hobetuta, ratioen** batuketa txundigarri horrek batzuen ahoetan irakurketa apur bat triunfalista ekarri du.



Eta jakina, datu hauekin, harrotu ere harrotu egin liteke, eta horrelaxe egin izan da. CCOO sindikatuak ez ditu berriro errepikatuko gure entitateak bere hedabiderik estimatuenean argitaratu eta bolo-boloan zabaldu dituen datuak. Hori bai, horren harira galdera batzuk planteatuko ditugu emaitzen aurkezpenean airean geratu zirenak.

Nondik datoz irabaziak? Euskaltel operaziotik hartutako 155,2 milioiko irabazi garbiak zeresan handikoak dira euren artean, baita partaidetzako 90 milioiko dibidenduak eta baliokidetasuneko emaitzak ere.

Baina hori gure negozioaren zatia da, negozio "bankario huts-hutsa" izan ez arren. Era estrategikoan inbertitzen asmatzeak orain dirulapikoa handitzeko modua eman digu, eta horri esker **sistema barruko bankurik kaudimendunena izaten jarraituko dugu**. Jakin badakigu kaudimenak emaitza-kontua zigortzen duela, baina ezin da leku guztietan egon batera.



Negozio bankario huts-hutsean geureari eusten diogu, eta hori ere ez da gutxi. Goiko aldean kontuan maniobrarako alde txikiarekin (Euribor ezaguna, burutik eragiten diguna, hipoteka daukagunoi izan ezik, jakina), Kutxabankek erakutsi du bere ratioak hobetzen dituela, irabaziak sortzeko mugak izan arren: komisio gehiago, fondoetan eta planetan kopuru handiagoa kudeatu, (balantzetik kanpora gero eta baliabide garrantzitsuagoak), finantziarioak gorantz egiten du, berankortasunak beherantz egiten du ...




Eta datu hauek guztiak onak izan arren (hain onak ez direnak apur bat ezkutuan daude, trapu zaharrak etxe barrurako, jakina), **hainbestetan aipatutako efizientzia-ratioa hitzaldi ofizialetik desagertzeak harritzen gaitu**. Ez zen, bada, daturik kezkarriena, entitateei neurria hartzeko erabiltzen zena? Entitatearen prentsa oharrean ez da aipatu ere egiten, ezta plantillaren gutunean ere. **Ez ote da izango iazkoa bezain txarra?**

2014an hain garrantzi handikoa zen zifra Kutxabanken %62 ingurukoa (2013an %64) izan zen, komenigarriena %50etik beherantz mantentzea izan arren. Zifra horrek estatuko entitaterik txarrenean artean kokatzen gintuen, izan ere 100 € hartzeko 62 gastatzen genituen. Baina, hobe da botila erdi beteta ikustea: hori hobetzeko maniobrarako tarte handiagoa daukagu, beste entitate batzuek baino.

Kontua da argitaratutako emaitza ofizialek efizientzia-ratioa %63,3an kokatu duten arren, sinatutako aurrejubilazioen eragina eta hornikuntzen gehiegikeriak kontuan hartuta, **ratioa %55en inguruan kokatuko litzatekeela**. CCOO sindikatuak egindako kalkulu hauek ere iradoki ziren zuzendaritzakideen bileran egindako emaitzen aurkezpenean. ROE (baliabide propioen errentagarritasuna) delakoaren bilakaera positiboan ere ikus daiteke hau, puntu bat eta erdian %4,66raino hazi dena (sektorearen batezbestekoa baino beheragokoa, eta Caixabank - %3,4-, edo Popular -%0,83- entitateena baino goragokoa).

7 puntu mandoren hobekuntza, ez dago bat ere txarto! Argudio moduan esan liteke Euskaltel bidezko sarrerak indartsuenak izan direla hobekuntza horretan, eta ekarpen hori barik efizientzia-ratioa iazkoaren antzekoa izango zela. Baina hori ez da horrela, edo behintzat, ez da hori bakarrik.




2015ean gure kalkuluen arabera 50 milioi baino gehiagoko hornikuntza edo zuzkidura garrantzi handikoa izan zen; dirutza hori aurrejubilazio planari ekiteko erabili zen eta gerora bere eragin positiboa edukiko du handik hurrengo urteetako ratioan. Gainera, horrexetarako daude bere sasoiaren egin ziren inbertsioen plusbaliak, halako une astunetan ekarpena egiteko. **Eztabaidaezina da efizientiaren hobekuntzak** Kutxabank bidean ez ezik, presidentek markatutako helburuaren hurbil-hurbilean ere jarri duela. Agindu baino urte batzuk arinago ere bai!

Beraz, **hitzaldi ofizialetik ratioaren desgerpena** ez da ustekabekoa: **datu ona dela-eta ez da agertzen**. Eta beharbada ez zaie komeni esatea, dirudienek, orain ez dagoela horrenbesterako presiorik, izan ere lan-hitzarmena berritzeko negoziazioen atarian gaude une honetan, eta bide horretan artilleria astuna erabiliko ei dute langileen gastuen kontua gutxitzeko ahaleginetan gure lan baldintzen murrizketarekin batera.

Baina bidea ibiliaren ibiliz egiten denez gero, huts egin arren, efizientzia-ratioa atzokoa baino hobea da: goza dezagun horrekin apur batean, beherapenak etor ez daitezen!


Lan jatorrikoak dira

Une batean edo bestean lan-ezintasun iragankorreko aldia pasatu duten lankideen kopuruak gorantz egin du Kutxabanken azken urteetan, **urtean %5etik gorako batezbestekora ailegatu arte**. Are gehiago, 2015eko hil batzuetan ia-ia %6ko mugara ere heldu da.



Enpresak beti uko egin dio hain datu altuaren lan-arrazioiak aztertzeari. Datu hori sareen arabera zehaztea eskatu izan diogunean ere, ezetz esan izan du: “*Legeak ez du derrigortzen*”. Pertsonen datuen pribatutasun-eskubidea argudiatuta, **enpresak esan du eragileak diren arrazoiei ez diela ez zenbakirik ez portzentaiarik jarriko.**

Lanari lotutako minak





Azken baten, ez dute nahi euren arrazoiak jakin ditzagun, bide batez ez dadila gerta estatistika hotzetan zuriaren gainean **gorriz** agertzea txarto egiten direla gauzak, **gure lanpostuen baldintzak hobetzeko modukoak** direla, eragiten den presioa larregizkoa dela.

Batesbesteko erreferentziak hartuta, langile batzuek (euren minak lanari lotuta daudela-eta) adierazten dituzten **begi-minek** zer ikusirik izango ote dute argiztapen urriegiarekin, edo programa informatikoek erabilitako letra tamaina desegokiarekin, edo pantaila zaharkituekin? Talde beraren %28k **lepoko mina eta sorbaldako mina** adierazten dutenean, edo %20k **behealdeko bizkarreko mina** esandakoan, ez ote dira izango, bada, gure aulkiak egoera txarrean, txarto diseinatutako lanpostuak, txarto kokatutako pantailak,...

Langileen %27,5ek esaten dutenean **min horien jarrerazko jatorrikoak** direla, eta beste %23,7k **jatorri tentsionalekoak** direla, horrek berak zerbait adierazi behar du. Datu horiek ez ote dute erakutsiko gure lanpostuetan eta bulegoetan hainbat gauza zuzentzeko daudela?

Aurrera. **Lanaren kantitateak buruz gain egiten digula** esaten dugunok Euskadin plantillako %40 baino gehiago gara: %24 baino gehiagori **antsietateko sintomak** eragiten dizkigu, eta plantillako ia %4ko batek (Zabalkundeko %14,80k) **lo nahasmenduak** ditu. Are gehiago, lankide batzuek **sintoma depresiboak** jasaten dituztela esaten dute. Ez da burutik jota gaudela, errementatu egin behar digula baino. Ez da, bada, izango plantilla neurrigabeko presiopean dagoela? Arrazoi hauengatik beste ezintasunik kontatu beharko da?



Gripea ez da arrazoi bakarra. Lan arrazoiak ere badira tartean. Eta orduan, zergatik ematen zaie lepoa hauei eta zergatik uzten dira alde batera soluzioak?

120 arrazozi egiteko jada!

Bost minutuko kontratua egingo dizugu eta gero... ikusi egingo dugu!



Boletin hau idazten gauden bitartean, **120 pertsonatik gora**, gure bulegoetan **urte bateko praktika modalitateko kontratupean** ditugu. Lankide hauek ez dira beste lankide baten behin-behineko baja estaltzera etorri, horretarako interinitate kontratua eskeiniko zieten, kasu batzuetan apenas egun batzuetako iraupenarekin.



Lankide hauei urte bateko kontratua egin zaie eta geure ondoan daude, nolabait, gaur egun, enpresa honek estrukturalki daukan **pertsonalaren gabezia** ekiditeko asmoz. Eta oraindik ere, eskas gabiltza. Argi daukagu, **enpresak lehenago edo beranduago, kontratazio finkoak egin beharko dituela.**



**PREKARIOAK
LANEAN**

Gure entitateak sinatutako azken lan akordioan, **gutxienez 30 lanpostu finko** betetzea adostu zen. Zergatik ez lehenbailehen hasi? Gutxienez, nabarmentzen dugu, nahi badu gehiago ere izan daitezkeelako.

30 postu (gutxienez), **gure enpresan praktika eta balizko kontratuekin aritutako eta dabilzan pertsonen artean**, CCOO sindikatuaren ustez. Oso ondo prestaturiko jendea, gogotsu datorrena, profesionalki enpresak hazitako jendea eta itxaroten dauden aukera ematen bazaie, Kutxabanken etorkizun bikaina eduki dezakete. Alde egiten uztea, konpetentziari aparteko aukera ematea da.

Ez dugu ulertzen enpresaren praktika hau "biharko utzi gaur egin daitekeena". Zer nolako onura dakarkio hilabete honetan ebatzi dezakeena azken momentura arte atzeratzeak? Sinatutako akordioaren lehen jarraipen bileran, kontratazio hauek noiz burutuko ziren galdetu genuen. Finkoak, ez ahaztu.

ABENDUAREN

31



Lanez beterik eta heldu ezinik zeudela ulertarazi ziguten, prejubilazioak administratzeko denbora tarte laburrean erdi kolapsatuta zeudela. Gero adierazitako etorrerak sorturiko arazo pertsonalen kudeaketa, zerbitzu zentraletatik sare komertzialera igarotako lankideen esleipena, publikatu berri den bulegoen sailkapena ... Badirudi, oso lanpeturik zeudela.

Hori atzo izan zen, ez dugu uste gaur horren estu egongo direnik. Orduan, zeri itxaron? **Enpresak hartu zuen konpromisoa zenbat eta lehenago bete, orduan eta hobeto!**



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxa: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta
Datu Aldaketa

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA			
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA	HERRIA		
JAIOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA		SEXUA	LANBIDEA		
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA			
			EZ	BAXUA	ERTAL	ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZIOA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA	
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA	LANTOKIA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA		FEDERAZIOA	SEKTOREA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA	KONTRATU MOTA

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren arabera lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen arabera federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerarekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

Baimena ematen diot CCOOko K.S.ari ordaindutako kuoten inguruko datuak dagokion Lurralde Ogasunari emateko, PFEZan zergak arintzeko helburuarekin.

AFILIATUAREN SINADURA

ZORDUNTZE ZUZENETIKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskabidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketari Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketari Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketak egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketak hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR) C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			

NAN edo AIZ

Sinadura